

1992.10.30

Donostian, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, 1992ko urriaren hogeita hamarrean egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarrak eta erditan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria eta X. Kintana, urgazleak, dagozkien gaietan.

F. Ondarra, Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Uztaila eta iraileko batzar-agiriak onartu dira.

J.M. Satrustegik zorionak eman dizkie batzartuei aditegiari buruz irailean hartutako erabaki garrantzitsua hainbesteko adostasunez hartu izanagatik. Euskaltzaindiaren Arautegia erabaki berriari lehenbaitlehen egokitzea eskatu du, besteak beste, hamaikagarren artikulua idazkariari egozten dion arduraren-erantzunkizuna beste era batera bideratzea erabaki baita.

I. BARNE GAIAK

Euskaltzaindiaren sorrerako 75. urteurrena. Datorren urtean egin gogo den ospakizunari buruzko erabakia gaur bertan hartu behar dela, esan du idazkariordeak, 1993ko aurrekontuak berehala prestatu behar baitira. Hasteko, aski da urtarileko Euskaltzaindiaren batzarrean, Bilbon egitea. Gero udazkenetik aurrera antolatuko diren ekintzen egutegia finkatu beharra dago eta datorren abenduaren 18-rako bidaliko dituzte batzordeburuek euren oharrak

Kanpo izendapenak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzarekin urtero antolatu ohi dituen Literatura-Sarien epaimahairako ordezkariak izendatu dira.

“Txomin Agirre” eleberri sarirako bederatzi lan jaso dira eta honako jaun hauek epaituko dituzte: Xabier Gereño, Felipe Juaristi eta Arantza Urretabizkaia.

“Toribio Altzaga” sarira hamaika antzerki iritsi dira. Daniel Landart, Patri Urkizu eta Eugenio Arozena izango dira epaimahaikideak.

“Arrese y Beitia” sarira hamar poema sail etorri dira. Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona eta Mikel Lasa izango dira epaile.

“Mikel Zarate” sariak zazpi saio ditu aurtan, eta epaimahaikoak, Andolin Eugazitza, Adolfo Arejita eta Alfonso Irigoien izango dira.

Denbora berean “Resurrección María de Azkue” idazle gazteendako sariko epaimahaian legezkeenen izenak ere eman dira: José Antonio Retolaza, Karmelo Etxenagusia eta Juan Luis Goikoetxea.

Gazteentzako I. Sketch lehiaketa antolatu du Euskadiko Kutxak, eta epaimahairako ordezkaria izendatu behar da. Euskara zuzen erabili eta istorio bat ongien eszenifikatzen duten ikasgelei eskainitako saria da. E. Knörr arduratuko da eta ezinean J.M. Vélez Mendizábal izango du ordezkoa.

1993ko aurrekontuak

Datorren urteko aurrekontuen azalpena egin du diruzainak. Kontabilitateko programa beste sistema batera aldatu behar izan dela esan du. Orain arte izandako hartu-emanen ondoren izugarrizko murrizketa proposatzen dute agintee, nahiz era desberdinean erantzun erakunde bakoitzak.

Diru laguntzen beherakada, Euskaltzaindiaren beharrak asko gehitu diren une batean gertatu da, hala-nola zazpi bekadun berri, egoitzako gastuak eta atezaina ere Euskaltzaindiaren kontuetan sartu beharra, langilegoaren soldata igotea, Euskara Batuaren Hiztegia eta abar luzea. 1992.eko aurrekontuetan, bestalde, 56 milioi gutxiago jaso du Euskaltzaindiak aginteengandik.

Arazo larri honen aurrean zenbait atal murriztu dira, baina handia da halere geratzen den zuloa. Batzorde Teknikoarekin bilduko dira lehenik diruzaintzakoak txosten ekonomikoa aurkeztuz.

Erakundeek urte amaieran izan ohi dituzten zenbait ataletako soberakinak aipatu dira. J.L. Lizundiak Bizkaiko diru kopuruen berri eman du adibidez.

Jarraipen Batzordeak agintarien aurrean arrazoi hauek erabil ditzan eskatu du diruzainak. E. Knörrek bere laguntza eskaini du Arabako agintariekin gestioaren bat egiteko.

Argitarapenak aipatu dira gero, hitzartutako laguntzak ez direla beti eskuratu azpimarratuz; diru kopuru handia dagoela jokoan eta zenbait liburu plazaratzea gerorako utzi beharko dela esan da. Ikerlanak ez argitaratzekotan bere balioa galtzen du. Liburuen salmentarako bide berriak erratzea ere aipatu da, Filologia-ko ikasleei aurkeztuz edo prentsa erabiliz. Etekina txikia izango litzakeela erantzun zaie, bete beharra den zuloaren aldean.

Nola nahi ere Euskaltzaindia ezin da erakundeez landa diru eskean ibili.

Euskaltzaindiak 1993ko aurrekontu hau onartu du eta beharrezkoa ikusten du.

Eskuarteko gaiak

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile ta Interpretarien Elkarteko gutun bat jaso da, *senez* aldizkarian, Euskaltzaindiak ematen dituen arau eta gomendioak argitaratzeko baimena eskatzen. Elkarrizketa baten ondoren, baimena ematea erabaki da, behar den moduan iturria aipatuz.

Euskararen Legea zertxoren bat aldatu nahi da Nafarroako Parlamentuan. Hizkuntzarekiko legeak sortu dituen hiru eremuak bitartzea proposatzen da, eta edozein udalek zinegotzien gehiengoz udalerria euskal eremukotzat har dezakeela maila honetako eskubide guzien baliagarri. Euskaltzaindiak talde politikoei eskari honen alde joka dezaten eskatuz, gutun edo agerpenen bat igortzea proposatu dute aurkezleek.

Europako hizkuntzen karta gogoarazi du euskaltzainburuak. Esan du idatzi diola Errepublikako presidenteari galdeginez Frantziak sina dezan, eta kopia bat igorri zaie gai horretaz arduratzen diren ministroei.

II. AKADEMIA GAIAK

Euskaltzaindiaren *Gramatika laburra* aztertzeko hilabete baten epea eskatu du E. Knörrek. Ez dela laburpen hutsa esan da, aldaketarik ere badagoela. A. Irigoienek oharren bat egin dio testuari idatziz, eta ongi ikusten du epea luzatzea. X. Kintanak dio orain jakin duela zirriborro horren berri, eta zergatik ez zaien banatu laguntzaileei. Eskubide hori aldarrikatzen du beretzat. Gastuen arazoa dago alde batetik urgazle guztiei bidaltzeko, eta aurreko Gramatikaren liburuak ere nolabaiteko onespena bazutela, esan du P. Goenagak.

Hilabeteko epea luzatzea onartu da. Gramatika batzordeak erabaki beza, bestalde, hitzaurrea, izen aurkibidea eta bibliografia nork egingo dituen.

Euskal Telebistako zuzendaria den Amatiñok jakin nahi du, X. Gereñok berari proposatutako *hitano* adizkera bikoizketa-lanetan ez erabiltzea, ideia zuzena ote den eta Euskaltzaindiak begi onez kusiko ote lukeen.

Ez da hain ezinezkoa hika mintzatzen ikastea, eta Euskaltzaindiarentzat galtze bat dela *hitanoa* baztertzea, erantzungo zaio.

Euskara Batuko batzordeak *usain/usai*, *arrain/arra* bezala *-ain/-ai* bukaera duten hitzak bateratzea proposatu du beti *-ain* forma erabiltzea gomendatuz. Aldeko iritzia agertu dute X. Diharce, E. Etxezarreta, X. Gereño, X. Kintana, E. Knörr eta J. San Martin jaunek. J.M. Satrustegik ez du ongi ikusten lehen batasunaren hiztegian hartutako erabakiak berritzen hastea, hainbat gai dagoelarik inoiz eraba-

ki gabe. Eztabaidan esan da badirela adibidetzat sartu behar liratekeen beste hitz batzuk ere.

Batzordearen proposamena onartu da. Idazketa berria egingo da esandako oharren arabera.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, 1992.eko urriaren 30ean, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria eta J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa; M. Atxaga, R. Badiola, J.M. Etxebarria, P. Goenaga, X. Kintana, M.^a P. Lasarte, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta urgazleak; Jose Migel Zumalaberen alarguntsa eta seme-alabak ere bertan dira, espreski gonbidaturik.

Goizeko bilkuraren berri ematen du lehendabizi J.M. Satrustegi idazkariak, honela labur bil daitezkeelarik gaiak: Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren ildo nagusiez proposamenak abenduko batzarrerarte aurkez daitezkeela; Bilbao Bizkaia Kutxaren babesez antolatzen diren eleberr, antzerki, olerki eta saio sariketarako epaimahaikideak izendatu direla eta baita Lankide Aurrezki Kutxak antolatzen duen I. Sketch lehiaketa erabakitzeke ordezkarria ere; 1993rako aurrekontuak onartu dira; Euskararen Legea zerbait aldatu nahi dela Nafarroako Foru Parlamentuan eta Euskaltzaindiak talde politiko guztiei asmo horren alde joka dezaten eskatzeko proposamena onartu da; Errepublikako Presidenteari Frantziak Europako hizkuntzen karta sina dezala egindako gutunaren kontu eman da; *hitanoa* baztertzea galtze bat dela erantzungo zaio Euskal Telebistari; *usain/usai, arrain/ arrai* bezala *-ain/-ai* bukaera duten hitzetan *-ain* forma erabiltzea gomendatzea erabaki da.

Dagozkien batzordeen azalpena. E. Knörr batzordeburuaren aginduz, J.L. Lizundia batzorde idazkariak Exonomastikaz egin berri den jardunaldiaren kontu eman du. Bai exotoponimiaz eta bai exoantroponimiaz zeintzu txosten aurkeztu, zer egitasmo eta ildo nagusi aztertu ziren eta nola abenduaren 7an bigarren jardunaldi bat Durangon egingo den, bertara ardura duten erakunde, elkarte edo lantaldeen ordezkariek gonbidatuko direla azaldu du.

P. Altuna Gramatika batzordeburuak Euskaltzaindiaren *Gramatika laburra* liburukia nola dagoen azaldu du, euskaltzainei aztertzeke hilabeteko epea luzatu zaiela goizeko bilkuraren esanez. Aipatu gramatika, uste zen epe barruan ezin izango da argitaratu.

Jose Migel Zumalabe Mendibururen hil berri txostena irakurtzen du Juan Mari Lekuona euskaltzain buruordeak. Txostengilearen esanetan Jose Migel euskararen bultzatzaile sutsua izan zen hizkuntzaz kezkatua eta beraren inguruoak

ere arduratuak izan zitezen nahi izaten zuen. Euskaltzaindiaren lanetan ere gogotsu parte hartu zuen hala nola “Zortzi urte arteko ikastola hiztegia”, “Etxegintza hiztegia” eta abar. Haren idazlanak zenbait aldizkaritan irakur daitezke.

“Satan, deaburua eta euskara. Mito baten inguruan” izeneko txostena aurkezten du Juan San Martin euskaltzainak. Txostengileak euskal literaturan zehar idatziriko zenbait testu gogora ditu, hots, P. Lafitte, R.M. Azkue, Aizkibel, Serapio Mugika, Iztueta, J.M. Barandiaran, ... Jarraian euskara ikastearen zailtasunak aipatu ditu “deabruak askotan nahi izan du ikastea, baina zenbait berba baino ez ditu ikasi, eta hauek ikasi bezain azkar ahantzi ditu”. Aipamen anitzen ondoren elkarrizketa luze eta aberatsa gertatu da bilduen artean.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria